

## NOKA 2022

### 1- AURKEZPENA

Noka Mentoring, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako programa, Tabakalerako zinema eta ikus-entzunezkoen arloak koordinatzen du, Zineuskadirekin lankidetzan, Euskadin eta Nafarroan oinarritutako zuzendari berrien proiektuak tutorizatu, lagundu eta bultzatzeko.

Noka Mentoringek denbora, espazioa, testuingurua eta akonpainamendu profesionala eskaintzen die zuzendari parte-hartzaileei euren filmen hasierako fasean; horrez gain, ahalik eta osoena izango den zuzendari-txosten bat egiten ere lagunduko diete, eremu zinematografikoan gaur egun eskaintzen diren tutore laguntza batzuk eskuratzeko aukera izan dezaten, bai Eusko Jaurlaritzakoak, bai ICAAkoak (Kultura Ministerioko Zine eta Ikus-entzunezko Institutua), eta baita nazioarteko industria zinematografikoko foro profesionaletakoak.

Prozesu osoan hiru tutore egongo dira- Mar Coll, Maider Oleaga eta Diana Toucedo- eta horiek hautatutako hiru proiektuen jarraipena egingo dute programa osoan zehar. Hiru tutoreen profitek lotura zuzena izango dute zinema-sorkuntzarekin. Mentoringean bi alderdi konbinatuko dira: batetik, film baten ideazio-prozesura sormenaren bidez hurbiltzea eta, bestetik, proiektu horiek merkatuan eta zinemaren industrian txertatzeko beharrezkoak diren moduluen eskaintza.

### Helburuak:

Noka Mentoringen helburua Euskadin eta Nafarroan bizi diren emakume zuzendari hasiberrien film luzeen proiektuak tutorizatu, lagundu eta akonpainatzea da. Aurten ere Tabakalerak hartuko du bere gain proiektuaren antolaketa, eta zine eta ikus-entzunezko arloaren garapen-programen artean ez ezik, Donostia Zinemaldia(SSIFF), Euskadiko Filmategia, Zineuskadi eta Elías Querejeta Zine Eskolarekin (EQZE) batera osatzen duen erakunde- eta profesional-sarean ere txertatuko da.

Noka Mentoring Tabakalera zinemagintzan aritzen diren erakundeek partekatutako programetan dagoeneko aktibatuta dagoen sare profesionalean eta prestakuntzakoan sartuko da. Tabakalera kultura garaikideko nazioarteko zentroan euskal zinemaren ondarea kontserbatzen eta eguneratzen duen Filmategia dago; ikus-entzunezko profesionalak bultzatzen dituen Zineuskadi, euskal ikus-entzunezko sektorea garatzeko; baita A kategoriako nazioarteko zinema-jaialdi bat ere, bere programetan industria, merkatua eta sorkuntza garaikidea integratzen dituena; zinema-eskola bat, prestakuntzaren esparruan aitzindaria eta bakarra dena, eta bere hiru espezialitateetan (artxiboa, komisariotza eta sorkuntza) iraganaz, orainaz eta etorkizunaz galdetzen duena; eta zine-pantaila partekatu bat eta erakunde ezberdinen artean egindako zine-proiektuen garapen programak koordinatzen dituen proiektu kulturala.

Aukeratutako emakumezko zuzendariak, beraz, talentu zinematografiko berria sustatzeko Tabakalera egiten duen lan partekatuko sistema honetan parte hartu ahal izango dute. Horri esker, aukeratutako hiru zuzendariak Tabakalera pantaila partekatuko zinema-saio guztietara doan sartzeko aukera izango dute programak irauten duen denbora guztian.

Halaber, EQZEko zuzendaritza akademikoarekin bilduko dira, beren proiektuen eta eskola-egutegiaren arabera, Noka Mentoring prozesuaren hilabeteetan zine-eskolan egingo diren tailer eta klaseetara ikasle gonbidatu gisa joateko aukera aztertzeko. Horrekin batera, industriako akreditazio profesional bat izango dute Donostia Zinemaldiaren 2022ko ediziorako eta, beraz, jaialdira eta haren industria-arloa joan ahal izateko esperientzia hori programan sartuko da, prestakuntza- eta laguntza-jarduera gisa.

Noka, beraz, film bat egiteko prozesua hasteko programa bat da. Luzea den bide baten lehen katebegia da, eta, horregatik, bere lehen fasean eta ahalik eta zuzendaritza-memoria sendoena egitean jarri nahi dugu arreta. Programara aurkezten diren zuzendariak egiten diegun galdera nagusia da zer film egin nahi duten eta zergatik. Zer film daramazu barruan? Programaren barruan proiektua, haren motibazioak, haren indarguneak eta haren potentzialtasun zinematografikoa ezagutzea da eskaintzen duguna.

## 2 - PARTE-HARTZAILEAK

Noka Mentoring Euskadin eta Nafarroan jaio edo bizi diren eta fikziozko edo ez- fikziozko film luzeko proiektuak dituzten zuzendari berriei zuzenduta dago (lehen edo bigarren filma).

Zuzendari talentudunak eta begirada zinematografiko propioa garatzeko gogoia dutenak babestu nahi dira Noka Mentoring proiektuarekin, bilaketa-prozesua obraren zati gisa ulertzen dutenak, zirriborratzen hasi diren irudi eta soinu horien zergatiari buruzko galderak egin nahi dituztenak, beren proiektuetan dimentsio artistiko eta sortzailea ez ezik zinemaren industrian eta prozesu profesionaletan parte hartzeko beharra integratzen dituztenak, beren film-proiektuek zinearen hiru garaiekin, iragana, oraina eta etorkizunarekin, elkarlotzeko aukera dutenak.

Zinema tradizio artistiko baten parte dela eta, aldi berean, ahots berriak behar dituen industria baten parte dela ulertzeko, begirada anitzen aberastasuna bilatzeko, exigitzeko jarrera hori baloratuko da proiektuak aztertzerakoan.

Itziar Leemans, Tamara Lucarini, Estibaliz Urresola, Irati Gorostidi, Marina Palacio, Sara Fantova, Clara Rus, Maddi Barber eta Nagore Eceiza zinemagileek NOKA Mentoring programan garatu dituzte euren proiektuak.

## 3 - PROGRAMA ETA DIRU-LAGUNTZA

Hautatutako hiru zuzendariak Nokak eskainitako programan parte hartu ahal izan dezaten eta proiektuak ahalik eta baldintza onenetan gara ditzaten, horietako bakoitzak 4.000 €-ko laguntza ekonomikoa jasoko du.

Hiru tutoreek -Mar Coll, Maider Oleaga eta Diana Toucedo- hautatutako hiru proiektuen jarraipena egingo dute programa osoan zehar. NOKAn memoria eta ideia-garapen fasean lan egingo dugunez, hiru tutoreen profilak zinema-sorkuntzarekin daude zuzenean lotuta.

Gainera, modulu bakoitzean profesional desberdinek, sormen prozesua lantzeaz gain, proiektua merkatuan eta zinemaren industrian nola mugitu azalduko diete.

1. MODULUA (2022ko martxoa/apirila)

Zinema barrutik: Proiektu aurkezpenak eta tutoreen saioak, non zuzendari baten kontzientzia eta zinemaren istorioak landuko diren. Saio hauetan, idazketaren lehen faseari hasiera emateko beharrezkoak diren tresnak landuko dira.

Gainera, parte-hartzaileek tutoreekin banakako lehen lan-saioak izango dituzte. Saio horretan, proiektu bakoitzaren helburuak eta lan-egutegia ezarriko dira. Izan ere, tutoreek zinemagileei lagunduko diete NOKA Mentoring programa osoan zehar.

2. MODULUA (2022ko apirila)

Gidoiaren idazketa: gidoiaren idazketari heltzeko moduak landuko diren saioak.

3. MODULUA (2022ko maiatza)

Zuzendaritza-memoria: proiektuaren zuzendaritza-txosten on bat egiteko gakoak eta tresnak ezagutzeko saioa.

4. MODULUA (2022ko ekaina)

Ekoizpena: produkzioari eta finantzaketa-planari lotuago dauden alderdiak lantzen hasteko saioak.

5. MODULUA (2022ko iraila)

Industriaren mapa, labak eta foro profesionalak: Donostia Zinemaldiko Industrian parte hartzea eta deialdiak, laborategiak, merkatuak eta jaialdiak egiteko aukerak ezagutzeko jardunaldiak, proiektuak aurkezteko eta produktoreekin eta finantzaketarekin harremanak lortzeko.

6. MODULUA (2022ko azaroa)

Ekoizpena, marketina eta banaketa Zineuskadiren eskutik (NOKA edizio guztietako partaideentzako jardunaldiak)

Zineuskadik antolatuko dituen jardunaldi hauetan nazioarteko koprodukzioa sustatuko duen finantzaketa-plan bat taxutuko dute, eta garapen-fasetik jarraitu beharreko marketin-estrategiari helduko diote. Era berean, orientazioa jasoko da banaketa nazionalari eta nazioarteko salmentei dagokienez.

#### 4- DEIALDIA ETA HAUTAKETA PROZESUA

- Proiektuak jasotzeko deialdiaren epea 2022ko urtarrilaren 17tik otsailaren 15era izango da (eguerdiko 12: 00etan).
- 2022ko martxoaren 15ean iragarriko dira programan parte hartzeko hautatutako hiru proiektuak.
- Hautaketa batzordea Maialen Belokik (SSIFF), Elias Querejeta Zine Eskolako zuzendari den Carlos Muguirok, Zineuskadiko koordinatzailea den Mar Izquierdok eta Tabakalerako NOKA Mentoring programaren koordinatzaile Sara Hernandezek osatuko dute.
- Hautaketa-prozesuan, batzordeak hautagaiak elkarrizketatu ditzake.
- Ezinbestekoa da parte-hartzaileak deialdian eskatutako dokumentazio guztia aurkeztea.
- Izena emateko online inprimakia bete behar da eta PDF dosierra erantsi.

#### 5- IZEN-EMATEA ETA AURKEZTU BEHARREKOAK

Izena emateko online inprimakia bete eta PDF txostena erantsi informazio honekin:

- 1. orrialdea: proiektuaren fitxa teknikoa. Izenburua, zuzendaria, fikzioa-ez-fikzioa, ekoizlea, halakorik balego, eta formatua (16 mm, adibidez).
- 2. orrialdea: proiektuaren sinopsia.



- 3. eta 4. orrialdeak: asmo-gutuna. Zergatik egin nahi duzu film hau?
- 5. eta 6. orrialdeak: CV eta filmografia.
- 7. eta 8. orrialdeak: hautaketa-batzordearekin partekatu nahi dituzun materiala zure proiektua hobeto azaltzeko: estekak, argazkiak, audioak, vimeoko estekak eta abar.
- 9. orrialdea: NANaren edo identifikazio-agiri ofizialaren kopia.

Zalantzak argitzeko idazti shernandez@tabakalera.eus emailera edo telefono honetan jar zaitezke harremanetan: 943 011 311 (3608 luzapena)

## 6- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdira aurkezten diren parte-hartzaileek honako baldintza eta konpromisoak bete beharko dituzte:

- Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- GS-kiko betebeharrak egunean izatea.
- Ez egotea zigortuta laguntzak edo dirulaguntzak jasotzeko aukera galtzarekin, ez penalki, ez administratiboki, ezta horretarako desgaitzen duen legezko lege-debekuren baten pean ere.
- Tabakaleran egindako lanak erabili ahal izango ditu deialdiaren xede den programaren, edukiaren eta emaitzen berri eman eta herritarren esku jartzeko.
- Deialdi honetako epeak betetzen ez badira, arrazoi gabe, emandako laguntzak eten ahal izango dira, eta hala badagokio, jasotako laguntzak itzuli beharko ditu.
- Deialdi honetan sortutako ikus-entzunezko lanen banaketan eta aurkezpen publikoetan, Tabakaleraren parte-hartzea aipatuko da. Horretarako, beren markak, logoak eta izen komertzialak erabiliko dira (adibidez, kredituetan).

- Tabakalerako espazioak erabiltzeko arauak errespetatuko dira.
- Tabakalerak eskubidea izango du proiektu guztietako ordezkarien parte-hartzea berrikusi, eta, beharrezkoa bada, proiektua edozein momentutan azkentzeko.
- Diru-laguntza jaso ondoren programatik kanpo geratzen diren parte-hartzaileek laguntzaren zenbateko osoa itzuli beharko dute.

## 7- JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaile eta/edo ordezkari guztiek bermatuko dute deialdi honen harira aurkezten diren proiektu, dokumentu eta ikus-entzunezko material guztiak, baita, hautatuak izanez gero, deialdi honetan parte hartu bitartean sortzen diren elementu guztiak ere, originalak direla eta ez dituztela urratzen hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak.

Oinarri hauek onartuz gero, hautatutako parte-hartzaileek eta/edo ordezkariak baimena ematen diote Tabakalerari jaso dituen edo laborategiko proiektuak gauzatzeko prozesuan sortutako dokumentuak eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko material guztiak egun ezagutzen ditugun euskarri mota guztietan erabiltzeko, betiere xede bakarra izanik deialdia, haren edukia eta haren emaitzak herritarrei jakinaraztea eta haientzat eskuragarri jartzea, edozein kanalen bidez eta doan. Ondorioz, Tabakalerak eskubidea izango du eduki hori ikusgai jarri eta publikoki komunikatzeko, edozein kanalen bidez, izan proiektua gauzatu bitartean, izan hura bukatu ondoren, epemugarik gabe.

Esandako guztiak ez du eraginik izango autorearen eskubide moraletan, ezta gorago aipatutako dokumentuei eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko materialei dagokien jabetza intelektualaren ondare-edukiaren eskubide guztien titulartasunean; horiek materiala sortu duten parte-hartzaileen eta/edo ordezkarien esku egoten jarraituko dute.

Edonola ere, parte-hartzaile edo ordezkari bakoitzak Tabakaleraren aurrean erantzun beharko die hirugarrenek jabetza intelektualari buruz jar ditzaketen erreklamazio guztiei, honako hauei dagokienez: (i) deialdi honen harira

aurkeztutako proiektuak, dokumentuak eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko materialak eta (ii) hautatuak izatekotan deialdian parte hartu bitartean sortutako dokumentuak eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko materialak; hala, Tabakalerari kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontzeptu horiei dagokienez egon litezkeen erreklamazioen harira sortutako kalte eta galera guztiengatik.

Halaber, eta Tabakaleraren markak, logoak eta izena ustiatzeko lizentzia emango die hautatutako parte-hartzaile edo ordezkariari. Lizentzia hori ez-esklusiboa, doakoa eta besterenezina izango da, eta proiektuen testuinguruan sortzen diren ikus-entzunezko lanak banatzeko eta zabaltzeko aurkezpenetan baino ezingo da erabili.

## 8- DATUEN BABESA

Parte-hartzailei edo ordezkariari jakinarazten zaie oinarri hauek onartuz gero, baimena ematen diotela Tabakalerari eskaera aurkeztu den unean eta, hautatuak izatekotan, deialdian parte hartzen duten bitartean emandako datu pertsonalak tratatzeko, eskaera izapidetu eta kudeatu eta berau zabaltzeko lanak egin ditzan.

Datu pertsonal horiek erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie legez derrigorrezkoa bada. Halaber, deialdian parte hartzeko hautatuak izan diren parte-hartzaile edo ordezkarien irudia eta izenak Tabakaleraren webgunearen bidez edo Tabakalerak bere jardueren berri emateko erabiltzen dituen euskarri ukigarri edo ukiezinen bidez helarazi ahalko zaizkie hirugarrenei, 10. oinarrian ezarritakoarekin bat eginez.

Testuinguru honetan, jakinarazten da datu pertsonal horiek ematea beharrezkoa dela; ondorioz, datu horiek ematen ez badira, laguntza publikoa jasotzeko eskaera ez da aintzat hartuko eta eskatzaileak ezingo du proiektuan parte hartu.

Tabakalerak hautagaitza baloratzeko eta, hala badagokio, deialdian izango duten parte-hartzea kudeatzeko eta lege-betekizunak betetzeko beharrezkoa den epean baino ez ditu gordeko parte-hartzaile edo ordezkarien datuak.





Edonola ere, parte-hartzaileei jakinarazten zaie eskubidea dutela (i) Tabakalerari eskatzeko beren datu pertsonalak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, beste norabait eramateko edo datuen tratamenduari uko egiteko; horretarako, idatzizko eskaera bat bidali beharko diote Tabakalerari, pribatasuna@tabakalera.eus helbide elektronikora, gaia "NOKA Mentoring 2022" delarik eta datuen titularrak sinatutako gutun bat erantsita (jakinarazpenetarako helbidea adierazi beharko da) eta NANaren kopia batekin. Horrez gain, eskubidea dute (ii) Datuen Babeserako Espainiako Agentzian edo eskumeneko beste edozein kontrol-agintaritzatan erreklamazio bat aurkezteko, bereziki beren eskubideak errespetatu ez direnean.

## 9- PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartuz gero, deialdi honetan parte hartzeko hautatuak diren parte-hartzaileek edo ordezkariak berariaz ematen diote baimena Tabakalerari (i) beharrezko bitarteko tekniko bidez (argazkiak, bideoak, etab.) proiektuan izan duten parte-hartzea erregistratzeko, parte-hartze hori Tabakaleraren espazioetan egiten denean eta (ii) irudi horiek eta beren izena Tabakaleraren webgunean eta/edo beste edozein euskarri ukigarri edo ukiezinetan erabili eta erreproduzitzeko, herritarrei deialdi honen xedea, edukia eta emaitzak ezagutarazi eta horiek gizartearen esku jartzeko.

Edonola ere, parte-hartzaile edo ordezkariak jakinarazten zaie edozein unetan dutela baimen hori kentzeko aukera.

## 10- OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetan parte hartzen dutenek, bertara aurkezteagatik bakarrik, onartu egingo dituzte oinarri hauek. Eskaeran informazioaren bat falta bada, partehartzaileak deialditik kanpo geldituko dira.



Elkarlanean gauzatutako egitasmoa:



Sustatzailea:

